

Hau ez da labirinto bat

María Luisa Fernándezen eskultura tailerra

Ezer ez da nahasia, irudimenezko mundua irudikatzen duen adimena ezpada

RENÉ MAGRITTE

Labirintoa artegintza eta "arte" jakintza aztertzeko desenkusa den aldetik; egoera konplexu, zail edo nahasi baten metafora gisa; termino derrigorrez ikusmenezkoa den aldetik, errepresentazio eremua antolatzen baitu denbora eta espazioa gehien-geheien zabaldu ondoren iristen den *erdigune* bat sortuz; ikusmenezko zentzu horretan labirintoak bi punturen arteko distantziarik luzeena markatuko luke, inimiziazko distantzia, denbora eta espazio propioak mugatzen dituen *burbuila berezia*.

Labirintoaren mitoak kargatu egin du artisten praktika, beti mitoez definitu eta apaindua, inimiziazko berezi batez: kretar mitoan bezala, jakintsuek eta heroiek soilik gaindi dezaketen galera, nahasmen, zailtasunaz.

Labirintoa bere esanahi anitzekin izango da tailerrean landuko diren lanen gidari: dela norberaren obraren gai gisa, edo dela langintzari edo errepresentatzeko moduari buruzko gogoeta gisa:

- Praktikatik, eta gure kontzientzia postmodernotik badakigu mitoak maiztu egiten direla; beste mito edo beste eredu batzuek definituko dute.
- Animalien adimenari buruzko esperientzietan ari diren zientzialarien ikuspegitik, ikaste prozesua aztertzeko burbuila bereziak diren labirintoetan burutzen baitira lan horiek.
- Kritikatik eta arte sistemaren kudeatzaileengandik, subjektu horiek beren lana artearen laborategiko esperimentatzaileak bailiren garatzeko joera baitute, beren estrategiekin, beren interesekin, beren ezaguerekin artistek egin dezaketena edo egin behar dutena gidatuz.

Arazo hau (*Hau ez da labirinto bat*) praktika desberdinetatik aztertzea interesatzen zaigu eta ikastaro honetara gonbidatutako espezialistek ikuspegi horietatik ariko dira.

OINARRIAK

INSKRIPZIOA: Interesa duten pertsona guztiek eska dezakete inskribatzeko.

Inskripzioa egiteko honekin batera doan inskripzio orria, curriculum vitae labur bat eta burututako obraren kolorezko argazki edo diapositibak, neurria ere zehaztuz, aurkeztuko dira ARTELEKUn, **Ekainaren 14a arte**.

ONARPENA: Tailerraren arduradunak berak aukeratuko ditu tailerreko parte hartzaileak, eta bere erabakiaren kontra ez da apelazio biderik izango. Aurkeztutako argazki edo diapositibek garrantzi handia izango dute partehartzaileen aukera egiterakoan. Tailerrerako onarpena pertsonalki jakinaraziko da.

ORDAINKETA: Partehartzaileek tailerraren lehen egunean aurkeztu beharko dute Kutxan, 2101/0381/07/000132947-3 zenbakiko k.k.an matrikula ordaindu izanaren agiria.

MATERIALA: Lanean erabiliko den materialaren kostua, arduradunak ezarritako muga baten barruan, Artelekuren kontura doa.

TAILERRA

Arduraduna: **Maria Luisa FERNANDEZ**.

Iraupena: **1996ko Uztailaren 1etik 30era**.

Inskripzio epea: **Azken eguna: Ekainaren 14a**.

Ordutegia: Tailerra zabalik 9etatik 20etara, astelehenetik ostiralera.

Partehartzaileen gehienezko kopurua: 15.

Matrikula: 13.000 pta.



Esto no es un laberinto

Taller de escultura de María Luisa Fernández

Nada es confuso, salvo la mente que imagina un mundo imaginario

RENÉ MAGRITTE

El laberinto como disculpa para tratar sobre el hacer y el saber "artístico"; como metáfora de una situación compleja, difícil o confusa; como término inequívocamente visual, que ordena el espacio de la representación, creando un centro al que se llega después de haber ampliado al máximo el tiempo y el espacio; el laberinto en este sentido visual, marcaría la distancia más larga entre dos puntos, distancia de iniciación, burbuja especial que limita un tiempo y un espacio propios.

El mito del laberinto ha cargado a la práctica artística, siempre definida y adornada por mitos, con una especial iniciación: pérdida, confusión, dificultad cuya superación, como en el mito cretense, es sólo propia de sabios y héroes.

El laberinto con sus muchos significados, será guía para los trabajos que se realicen en el taller: bien como tema de la obra personal, o bien como reflexión sobre el hacer y la manera de representarlo:

- Desde la práctica y desde nuestra conciencia posmoderna sabemos que los mitos se desgastan, otros mitos u otros modelos la definirán.
- Desde la visión de científicos que trabajan en experiencias sobre la mente animal, tarea que se suele desarrollar en los laberintos, burbujas especiales para estudiar el aprendizaje.
- Desde la crítica y los gestores del sistema del arte, sujetos que tienden a desarrollar su tarea como si fueran experimentadores en el laboratorio del arte, dirigiendo con sus estrategias, sus intereses, sus conocimientos, lo que deben o pueden hacer los artistas.

Los especialistas invitados al curso, estarán relacionados con las distintas prácticas desde las que nos interesa contemplar el problema: *Esto no es un laberinto*.

BASES

INSCRIPCIÓN: Podrán solicitar su inscripción en el curso todas las personas interesadas.

La solicitud se realizará mediante la presentación de la hoja de inscripción adjunta a estas bases, breve curriculum vitae y fotografías o diapositivas en color de la obra realizada, indicando tamaño de la misma, en ARTELEKU, **hasta el 14 de Junio**.

SELECCIÓN: La selección de admisión se llevará a cabo por el responsable del taller, cuya decisión será inapelable. Las fotografías/diapositivas de obra presentadas, jugarán un papel importante a la hora de la selección. La admisión al curso se comunicará personalmente.

PAGO: Los participantes deberán presentar el primer día del taller, el justificante de ingreso en la Kutxa, cta. cte. nº 2101/0381/07/000132947-3.

MATERIAL: El coste del material corre a cargo de Arteleku, dentro de un límite establecido por el responsable.

TALLER

Responsable: **María Luisa FERNANDEZ**.

Fechas: **Del 1 al 30 de Julio de 1996**.

Plazo de inscripción: **Ultimo día: 14 de Junio**.

Horario: Taller abierto de 9 a 20 horas, de lunes a viernes.

Número máximo de participantes: 15.

Precio de inscripción: 13.000 ptas.

